

**TAYFUN KORKUT** (Realeko erdilaria)

«Puntuak garrantzitsuagoak dira guretzat eurentzat baino. Oso derbi ona izango da, gu prest gaude»

«Lehiatua, gogorra izango da, baina dakigun bezala jokatzeko badugu, aurrera aterako dugula uste dut»

**AITOR LOPEZ REKARTE** (Realeko atzelaria)

«San Mamesen oso giro ona egoten da, Euskadiko partidetan bezalako. Gu hor ongi moldatzen gara»

«Gure taldeko jokalariek atzerritarrek badakite derbiak zer diren. Euren herrialdeetan ere jokatu ohi dituzte»

«Irabazi egingo dugu»

1992-1993an bere agindupean lortutako garaipena errepikatuko dutela dio Heynckesek

Haritz Gallastegi | BILBO

Egungo futboleko dagoen berdintasuna aintzat hartuta, zortzi denboraldi jarraian San Mamesen galdu barik egotea oso talde gutxi lor dezakete. Edozein talderen zelaian horrenbeste urtean galdu gabe egotea gaitza bada, are eta zailago da derbi bat denean.

Realak, ordea, aspaldi hartu zion neurria Athletici, eta azken urteotan emaitza onak lortu ditu talde zuri-gorriaren aurka. Aurrekariak kontuan hartuz gero, Real beldurra eragiteko adinako aurkaria da, baina Heynckesek ez dauka zalantzarik, eta hiru puntuak Athleticen eskuratuko dituela uste du. «Ziur nago Athleticen irabaziko duela, eta bide batez azken urteotako bolada txarrari amaiera emango diogula. Athleticen Realaren aurka San Mamesen irabazi zuen azkenengo aldian neuntzen talde zuri-gorriko entrenatzailea. Bihar —gaur— garaipenaren bidea berreskuratuko dugu», adierazi zuen entrenatzaile alemaniarrek atzo.

San Mamesen denboraldiko hirugarren garaipena lortzeko, jokatzeko era aldatuko duela

nabarmendu zuen teknikari zuri-gorriak. «Jokalariek badakite euren bertuteen berri, baina beste zenbait gauza hobetu beharra dute, eta horiek aldatzen saiatuko gara», esan zuen Athleticen teknikariak.

Loreak Realarentzat

Anoetan jokatuak derbiarekin alderatuz, Toshackek zuzentzen duen taldeak hobera egin duela uste du Heynckesek. «Real denboraldi hasieran baino aurkari indartsuagoa da. Bere maila berreskuratu du. Hala ere, derbi batean sailkapenak zein joko boladak ez dute eragin handirik. Talde biezat norgehiagoka zaila izango da», azaldu zuen.

Westervelden eta Kovacevicen fitxaketak taldearen «kalitate» areagotuko duela iritzi dio Heynckesek. «Kovacevicen arrakasta handia izan zuen Donostian egin zuen lehenengo egonaldian. Atezainak, oster, esperientzia du. Dena dela, Alberto atezain ona dela uste dut», nabarmendu zuen teknikari beteranoak. Halaber, ez zuen ahaztu gura izan derbietan sortzen den giroa, «bikaina da benetan», esan zuen.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Jupp Heynckes atzo Lezaman baloia kontrolatzen.

REALA BILBON

Atzoz geroztik daude bilduta jokalariek txuri-urdinak

Realeko jokalariek atzo arratsaldeko lan saioaren ostean Donostiako hotel batean bildu ziren, eta bertan pasa dute gaua. Gaur 12:30ean abiatuko dira eta Bilboko beste hotel batean bilduko dira San Mamesera joateko ordua iritsi arte. Partidaren ondoren, gauerdian abiatuko dira Bilbotik Donostiara.

SAN MAMESEKO SOZIOAK

Bostehun bazkide berrik debuta egingo dute gaur Athleticen harmailetan

Athleticen 500 bazkide berri izango ditu gaur San Mameseko harmailetan. Aste honetan bertan itxi dute Athleticen konpromisoa, eta bazkide bezala gaur ikusiko dute euren lehen partida. Herenegun klubaren bulegoetan pozik zeudela nabari zitezaien.

ANAITASUN GIROA

Zuzendaritzek elkarrekin bazkalduko dute

Athletic zein Realeko Zuzendaritzako kideek elkarrekin bazkalduko dute euskal derbietan duela urte batzuk harturiko ohiturari eutsiz. Hala, bazkarietan giro ona izan ohi da nagusi eta, tarteka, musean ere aritu izan dira elkarrekin.



JAVIER ETXEZARRETA / EFE

Uribe eta Astiazaran, iaz.

LEZAMATIK

■ Haritz Gallastegi

Bigarren zatiak ere onak izan daitezke

Atzera begiratzea ez da ona izaten, ezta indarra hartzeko ere. Baina batzuetan, komenigarria izaten da balorazioak eta azterketak egitea, badaezpada sasoi bateko akatsak errepika ez daitezkeen. Athleticen, orokorrean, lehenengo itzuli ona egin du. Akats bakarra etxeko neurketak izan dira. Are gehiago, San Mamesen jokatu duten Ligako talde ahulenak gaitzetzeko orduan sortu dira arazoak. Valladolid, Rayo edo eta Mallorca gisako taldeek behin eta berriz agerian utzi dituzte talde

zuri-gorriaren gabeziak. Heynckesek Liga hasieran aukeratutako joko sistema aproposa da etxean jokatzeko. Hegoetatik jokatzeko egokia da aurkariaren defentsa zuzaltzeko. Hala ere, azkartasuna eta sakontasuna falta izan zaie aurkariaren atzealdeak zuzaltzeko. Akatsak akats, lehenengo itzuliak gauza txarrak baino onak gehiago utzi ditu. Taldearen mentalitatea eta jarrera bikaina izan da. Heynckesek talde bat osatu du, eta aldaketak egin arren, Athleticen talde sendoarenean itxura eskaini du un-

oro. Erasoko jokoa eta defentsaren arteko oreka lortu du alemaniarrek. Aldaketak—harrigarriak batzuetan—, ez dira nabaritu. Eta hori, Urzaiz izan ezik, taldeko izarrek ez dutela barruan daramaten guttia eman! Euren ordez, orain ere bigarren maila batean zeuden jokalariek hartu dute erantzukizuna. Tiko, Javi Gonzalez, edo eta Lacruzek jokalariek gisa hazi egin direla erakutsi dute. Athletic egiten ari den denboraldia kontuan hartzeko modukoa da, eta bigarren itzulira begira baikor izateko nahikoa arrazoi daude. Katedraleko arazoiei irtenbidea aurkituz gero —kanpoan ibilbidea horren ikusgarria izan ez arren— ez dago atzera begiratzeko premiarik. Bigarren zatia ona izango da, ziur!



ROSMIL
INDUSTRIAL, S.A.



TORLOJOGINTZA BEREZIA ETA ERRESISTENTZIA HANDIKOA
FINKATZE OSAGARRI GUZTIAK BANATZAILE BAKAR BATEK BILDUAK

Telefonoak: 94-471 05 19 - 20 / Faxes: 94-471 02 73 - 48150 SONDIKA - BIZKAIA